



# **EHU-KO IRAKASLEEN ETA IKERTZAILEEN GREBA EGUNA ARRAKASTATSUA IZAN DA**

EHUko campus guztietai grebak oso jarraipen zabala izan du. Nahiz eta fakultatez fakultate eragina desberdina izan den, zentro guztietai nabaria izan da. Zentroak irekita egon dira (Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak, plantillaren laurden bat, ez zeuden grebara deituta), baina aktibitate akademikoa oso eskasa izan da. Adibidez, Gasteizko Lan Harremanetan, Hezkuntza eta Kirol fakultatean eta Ekonomia eta enpresa fakultatean, Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzietai, Donostiako Psikologian, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Kimika, Informatika, Ingenieritza eta Zuzenbide fakultateetan ez da ia klaserik egon eta grebarei jarraipena zabala izan da.

Era berean, Bilbon, Donostian eta Gasteizen egindako mobilizazioetan EHUKO irakasleen parte-hartzea oso handia izan da.

Urriaren 11an greba egin genuenean aldarrikapen zerrenda bat jarri genien mahai gainean EHUKo zuzendaritzari zein Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailari. Zerrenda horretan, ordezko irakasleen gaiak berebiziko garrantzia zeukan, unibertsitateko irakasle horiek pairatzen duten prekarietate egoeraren larritasunagatik. Hala ere, ez dituzte aurrerapausorik eman arazoaren muinari ekiteko, hartu dituzten erabakien ondorio kaltegariei adabakiak jartzeari mugatuta. Arduraldi osoko irakasleen ordezkapenak arduraldi partzialeko ordezko irakasleen bitartez kontratatzen jarraitzen dute, 800 eurotako soldatekin. Langile hauengana suposatzen duen egoeraz gain, ordezkapen asko bete gabe geratzen dira, edo denbora luzea pasatzen da bete arte, zaila baita halako lanbaldintzak onartzea. Honek arazo handiak ekarri ditu sailetan, bajan edo baimenean dauden irakasleen kredituak saileko gainerako irakasleengan banatu behar baitira. Baino, irakaskuntza-karga handitzeaz gain, irakasgaiak irakasle batzuen artean zatikatuta geratzen dira kasu askotan. Hori guztia irakaskuntzaren kalitatearen, ikerkuntzaren eta kudeaketaren kaltetan. Ikerkuntzaren kaltetan. Ikerkuntzaren eta kudeaketaren kaltetan. Ikerkuntzaren eta kudeaketaren kaltetan.

Hala ere, ordezko irakasleen ez zen izan eta ez da, inolaz ere, grebara deitzeko arrazoi bakarra. EHUKO irakasle eta ikeratzaileok urteak daramatzagu gure lan-baldintzen okertzea pairatzen eta nahikoa dela argi esan nahi dugu. Lan-zamak handitu dizkigute azken urteotan eta hurrengo ikasturtean martxan jarriko duten irakaskuntza antolatzeko JARDUN sistema berriarekin gehiago handituko direla aurreikusten dugu. Horrez gain, burokratizazioa itogarria izaten jarraitzen du procedura askotan, plantillaren ezegonkortasuna oso handia da eta, gainera, kolektibo ezegonkorrenak sistematikoki diskriminatzen dituzte egoera are gehiago okertuz (behin-behineko irakasle-ikertzaile kolektibo batzuei ikerkuntza-seiurtekoak ukatuz eta lanaldi partzialekoei irakaskuntza-bosturtekoak ukatuz). Ikertzaile-ibilbidearen garapena etengabe oztopatzen dute, erretiroen akordioen deuseztapenarekin murrizketa itzela gauzatu dute jubilatzeар dauden irakasle askoren eskubideak urratuz eta plantillaren berritzea kaltetuz. Arazoa egiturazkoa da.

Erabaki hauek aldebakartasunez ezarri ditu EHUKo zuzendaritzak, langileen ordezkariak

diren sindikatuok mahai gainean jarri ditugun alternatibak haintzat hartu gabe. Izan ere, haientzat, arazo hauetako batzuk ez omen dira existitzen, eta gai batzuen inguru negoziatzeko eseri direnean, negoziazio-eszenifikazioa baino ez dute egin, beren posizioetan tematuta. Azken urteetan, bizi ditugun lan-gatazketa, zuzendaritzaren inposizio-jarrera behin eta berriro pairatu dugu langileok. Urriaren 11n grebara eraman gintuzten arazoak mantentzen dira, ez baitira gai izan arazoei zentzuzko irtenbideak bilatzeko, hedabideetara begira zabaltzen dituzten mezuak kontrakoa erakusten saiatu arren.

Baina EHuko zuzendaritzaz gain, Eusko Jaurlaritzak erantzukizun nabaria dauka: erosahalmenaren galera metatua urteetan zehar, osagarrien izozketa 2006tik, lanaldi partzialeko ordezko irakasleentzat miseriazko soldatak ezartzen dituen 41/2008 Dekretua sortu eta indarrean mantentzea, edota unibertsitateko irakasle-ikertzaileen oinarrizko soldatak hezkuntza ez unibertsitarioenak baino baxuagoak izatea (unibertsitatean lanpostu iraunkorra lortzeko doktorea izatea beharrezkoa bada ere). Era berean, EHUna bideratutako finantzaketa ez da batere nahikoa. 2022an, EAEko Barne Produktu Gordinaren % 0,4 izan zen, duela hamarkada bat baino baxuagoa eta USLO legeak berak 2030erako helburu moduan planteatzen duen BPGren % 1-tik oso urrun.

EHuko aktibitate akademikoa gutxienean utzi duen greba honen bitartez, EHuko zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritza berriro interpelatu nahi ditugu; bakoitzak bere ardurapeko esparruan dagozkion ardurei heldu eta EHuko irakasle eta ikertzaileen lan-baldintzen prekarizazioarekin amaituko duten erabakiak har ditzaten. Lan-baldintza dunik ez badugu, ezin dugu kalitatezko unibertsitate bat garatu, eta euskal gizarteak merezi eta behar duen Unibertsitate publikoa jokoan dugu. Are gehiago, unibertsitate pribatuei alfonbra gorria jartzen dietela ikusten dugunean.

Borrokan jarraituko dugu beste unibertsitate eredu baten alde, euskal jendartearen zerbitzura, non langileen lan-baldintzak duinak diren. Horregatik, gaurko grebaz gain, martxoaren 12an EHuko irakasle-ikertzaileak eta unibertsitateko beste langile guztiak sektore publikoko grebara gehitzen deitzen ditugu. Ondorengo hilabeteetan erroko arazoak konpontzen ez diren heinean, EHuko irakasle eta ikertzaileak kaleetan jarraituko dugu.

**EHUn prekarizazio eta diskriminaziorik ez!**

**Lan-baldintza duinak EHuko langile guztiontzat!**

Euskal Herrian, 2024ko martxoaren 6an



## **LA JORNADA DE HUELGA DEL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR DE LA UPV/EHU HA SIDO EXITOSA**

En todos los campus de la UPV/EHU la huelga ha tenido un seguimiento muy amplio. Aunque el seguimiento ha sido diferente entre los centros, en todos ellos ha sido muy evidente. Los centros han estado abiertos (El Personal Técnico, de Gestión y de Administración y Servicios, una cuarta parte de la plantilla, no estaba convocados a la huelga), pero la actividad académica ha sido muy escasa. Por ejemplo, en las facultades de Relaciones Laborales, Educación y Deporte, Economía y empresa de Gasteiz, Ciencias Sociales y de la Comunicación, Psicología, Educación, Filosofía y Antropología, Química, Informática, Ingeniería y Derecho apenas ha habido clases.

Asimismo, la participación de profesoras/es-investigadoras/es de la UPV/EHU en las movilizaciones celebradas en Bilbo, Donostia y Gasteiz ha sido muy alta.

Con el llamamiento de huelga el 11 de octubre pusimos sobre la mesa una lista de reivindicaciones tanto a la dirección de la UPV/EHU como al Departamento de Educación del Gobierno Vasco. En esta lista, la problemática del profesorado sustituto era de vital importancia por la gravedad de la situación de precariedad que sufren estos y estas profesoras universitarias. Sin embargo, no han dado ningún paso adelante para abordar el fondo del problema, limitándose a poner parches a los efectos adversos de las decisiones que han tomado. Las sustituciones del profesorado a tiempo completo se siguen contratando a través de personal sustituto a tiempo parcial, con sueldos de 800 euros. Además de la situación que supone para estos trabajadores y trabajadoras, muchas sustituciones se quedan sin cubrir o pasa mucho tiempo hasta que se cubren, ya que es difícil aceptar este tipo de condiciones laborales. Esto ha generado importantes problemas en los departamentos, ya que los créditos del profesorado de baja o permiso deben repartirse entre el resto del profesorado del departamento. Pero, además de aumentar la carga docente, las asignaturas quedan fragmentadas entre varios/as profesores/as en muchos casos. Todo ello en detrimento de la calidad, investigación y gestión de la enseñanza. Muchas/os estudiantes se ven claramente afectadas/os.

Sin embargo, esta problemática ni fue ni es, en ningún caso, el único motivo por el que se llamó a la huelga en el personal docente e investigador de la UPV/EHU. Llevamos años sufriendo un empeoramiento de nuestras condiciones laborales y queremos decir claramente que ya basta. Las cargas de trabajo se han incrementado en los últimos años y prevemos que aumentarán con el nuevo sistema JARDUN para organizar la enseñanza que pondrán en marcha el próximo curso. Además, la burocratización sigue siendo asfixiante en muchos procedimientos, la inestabilidad de la plantilla es muy elevada y, además, discriminan sistemáticamente a los colectivos más inestables empeorando aún más la situación (negando sexenios de investigación a algunos colectivos de profesores/as-investigadores/as eventuales y negando quinquenios de docencia a los de tiempo parcial). Obstaculizan constantemente el desarrollo de la carrera investigadora, y con la anulación de los acuerdos de jubilaciones han llevado a cabo un drástico recorte, vulnerando los derechos del profesorado a punto de jubilarse y perjudicando la renovación de la plantilla. Estamos ante un problema estructural.

Estas medidas han sido establecidas unilateralmente por la dirección de la UPV/EHU, sin tener en consideración las alternativas que hemos puesto sobre la mesa los sindicatos representantes de la plantilla. Porque, para la dirección, algunos de estos problemas no

existen, y, cuando se han sentado a negociar sobre algunas cuestiones, no han hecho más que escenificar una negociación, manteniéndose tóricamente en sus posiciones. En los últimos años, en los conflictos laborales que estamos viviendo, la plantilla ha sufrido una y otra vez la actitud de imposición de la dirección. Se mantienen las razones que nos llevaron a la huelga el 11 de octubre porque no han sido capaces de buscar soluciones razonables a los problemas, por mucho que intenten mostrar lo contrario los mensajes que lanzan de cara a los medios.

Pero, además de la dirección de la UPV/EHU, el Gobierno Vasco tiene una responsabilidad evidente: pérdida acumulada de poder adquisitivo a lo largo de los años, congelación de complementos desde 2006, creación y mantenimiento del Decreto 41/2008 por el que se establecen salarios de miseria para el personal docente sustituto a tiempo parcial, o que los salarios básicos del personal docente investigador universitario sean inferiores a los de la educación no universitaria (aunque sea necesario ser doctor/a para acceder a un puesto permanente en la universidad). Asimismo, la financiación destinada a la UPV/EHU es absolutamente insuficiente. En 2022 representó el 0,4% del PIB vasco, una cifra inferior a la de hace una década y muy lejos del 1% del PIB que la propia ley LOSU plantea como objetivo para 2030.

Con esta huelga, que ha dejado en mínimos la actividad académica de la UPV/EHU, queremos interpelar de nuevo a la dirección de la UPV/EHU y al Gobierno Vasco para que, en sus respectivos ámbitos, aborden las responsabilidades que les corresponden y tomen decisiones que acaben con la precarización de las condiciones laborales del personal docente e investigador de la UPV/EHU. Si no tenemos unas condiciones laborales dignas no podemos desarrollar una universidad de calidad y es la propia Universidad pública que la sociedad vasca merece y necesita lo que está en juego. Ello es todavía más preocupante cuando vemos que ponen la alfombra roja a las universidades privadas.

Seguiremos luchando por otro modelo de universidad, al servicio de la sociedad vasca, donde las condiciones laborales de los y las trabajadoras sean dignas. Por eso, además de la huelga de hoy, el 12 de marzo llamamos al personal docente e investigador y al resto de trabajadoras y trabajadores de la UPV/EHU a sumarse a la huelga en el sector público. En la medida en que los problemas de raíz no se resuelvan en los meses posteriores, el personal docente e investigador de la UPV/EHU seguiremos en las calles.

**¡No a la precarización y la discriminación en la UPV/EHU!**

**¡Condiciones de trabajo dignas para toda la plantilla de la UPV/EHU!**

En Euskal Herria, a 6 de marzo de 2024